

Apirilaren 1ean, larunbata, Errenteriako Iztieta auzoan, udalerrri horretako auzoetarako Komunitate Animazioari buruzko jardunaldi bat egin zen. "Iztieta-Ondartxo auzoan lanegun aktibo eta kolektiboa".

Auzoko San Jose parrokiako Caritasek, 11 boluntariorekin eta parrokoarekin, stand bat ipini zuen jardunaldian.

Caritasen standa parrokiaren aurrealdean egon zen, hainbat eskaintzarekin. Caritas Gipuzkoari eta Elizbarrutiko Caritasen 50. urtemugari buruzko informazio orokorra, auzoan Parrokiako Caritasek egiten dituen ekintzei buruzko liburuxkak, familiekiko arretak, zerbitzuak.... lankidetzarako liburuxkak eta bidezko merkataritzako produktuen salmenta.

Ingurua girotzeko, gizarteari zuzenduriko mezuak zituzten bide-seinaleak erabili ziren, eta ikusmina piztu zuten, bide-seinale horiek ez baitzuten jatorrizko esanahia, oso bestelako esanahia baizik.

Eguraldiak lagundu ez bazuen ere, boluntario guztiek sutsuki parte hartu zuten ekitaldietan.

"Bihotz gorri txiki" eskola-laguntzarako taldeko neska-mutikoek kartel bat egin zuten: beren esku gurutzatuak adierazten zuen marrazki bat. Proiektu berri hau auzoko jardunaldian erakutsi nahi genuen. Horregatik, alde batetik, presentzia fisikoa izateko, han izan ziren begiraleak parte hartzen, eta bestetik, gurutzatutako esku horien bidez, parrokiako lokaletara egunero joaten diren neska-mutikoak irudikatu nahi izan genituen.

Bidezko merkataritzako produktuen salmenta arrakastatsua izan zen.

Eguraldiak lagundu ez bazuen ere, auzotar asko ibili zen standetan. Hori horrela, jardunaldiak helburua bete zuen: auzoan diren zerbitzuei eta jardueri buruz informatzea, eta erakustea komunitatean jardun behar dugula lanean, eta ez bakoitzak bere aldetik, departamentu txikitik, gainerakoak zertan ari diren jakin gabe.